


Euskal AEko I+Gko gastua BPGren %1,98 izan zen 2009an

Gastua %1,3 hazi da 2008ren aldean

2009. urtean, Euskal AEn guztira 1.281 milioi euro inbertitu ziren Ikerketa Zientifiko eta Garapen Teknologikoko (I+G) jardueretan, aurreko urtean baino %1,3 gehiago, EUSTATEk landutako datuen arabera. Ekonomiaren egoera den bezalakoa delarik, hazkunde-tasa positiboak eutsi zaie.

2009.ean, Euskal AEko I+G gastua BPGren %1,98 izan zen, aurreko urtean baino hamabi ehunen gehiago; gastuaren hazkunde positiboari eta BPGren bilakaera negatiboari esker. 27-EBko batez bestekoarekiko eta 2008ko azken datu eskuragarrien aldean, Euskal AEko gastua, BPGren terminoetan, zortzi ehunen gehiago izan zen, eta garbi dago, baita ere, Espainiako batez bestekoaren gainetik, zeina BPGren %1,38 izan baitzen.

1. grafikoa: I+Gko barne-gastua, BPGrekiko (%)



Iturria: Eustat. EUSKAL AEKO IKERKETA ETA GARAPEN TEKNOLOGIKOKO (I+G) JARDUEREN ESTATISTIKA EIN eta Eurostat

Euskal AEn egindako I+Gko gastuaren %76,3 enpresa-sektorean egikaritu zen

Egikaritza-sektoreei dagokienez, enpresek I+Gko gastuaren %76,3 egin zuten; %18 unibertsitate-ikerketara bideratu zen, eta gainerako %5,7 administrazioaren mendeko zenbait organismo publikok egikaritu zuten.

Beraz, Euskal AEko enpresa-sektorea da, erkaketaz, ikerketa-ahaleginik handienaren egile; halere, aurreko urtearen aldean gastua %2,7 murriztu da. 2009an Herri Administrazioaren eta Goi mailako irakaskuntzaren sektoreek kuota irabazi dute 2008ren aldean; izan ere 2009ko hazkunde positiboak %20,3 eta %16,3 izan ziren. Alde handia dago estatuko emaitzen aldean: 2009. urtean, enpresek I+Gko gastuaren %52,1 besterik ez zuten egikaritu, Goi-mailako irakaskuntzak %27,8 eta Herri-administrazioak %20,1.

Sektoreka, Industriak 2009ko I+Gko gastuaren %44,4 kontzentratu zuen eta Zerbitzuek %53,6 Industri enpresetan zentratuz, nabarmentzekoak dira ondoko jarduera adarrak: Garraio materiala, Metalezko artikulua eta Beste makineria, hiruren artean enpresen sektoreko barne gastuaren %21 egikaritu zutelarik. Zerbitzu-enpresen aldetik, I+Gko zerbitzuetakoak dira baliabiderik gehien bideratzen dituztenak, eta guztien artean enpresen barne gastuaren %32,6a iritsi ziren.

Finantzaketaren ikuspegitik, finantzaketa pribatuak, enpresen bidez, 692 milioi euro bideratu zituen ikerketara, guztizkoaren %54; finantzaketa pribatua %40ra iritsi zen; goi-mailako irakaskuntzak %2,5, eta funtsen %3,5 atzerrian edo irabazi-asmorik gabeko zenbait erakundetan atzeman ziren.

1. taula. I+Gren adierazleak

	Euskal AE		Espainia	Europako Batasuna 27
	2008	2009	2009	2008
I+Gko gastuak (%) egikaritza-sektoreen arabera				
Enpresak eta IAGEP	79,5	76,3	52,1	64,9
Herri administrazioa	4,8	5,7	20,1	12,7
Goi-mailako irakaskuntza	15,7	18	27,8	22,4
I+Gko langileak (*)				
Langileak guztira	15.373	16.690	220.777	2.455.192
Ikertzaileak	9.640	10.386	133.803	1.504.575

(*) E.D.P.: Dedikazio osoko baliokidetzak

Euskal AEn dedikazio osoko baliokidetzan I+Gn lanean aritu ziren langileak 16.690 izan ziren, 2008an baino %8,6 gehiago. Horietatik %62, hau da, 10.386, ikertzaileak. Euskal AEko I+Gk pertsona okupatuen milako 17 hartzen ditu, eta ikertzaileek milako 11.

I+Gko langileen %34 emakumezkoak dira

I+Gko jardueretan emakumeek duten parte hartzearen ehunekorik handienak herri-administrazioetan eta goi-mailako irakaskuntzan gertatzen dira, %50 eta %47,4 baitira, hurrenez hurren. Enpreetan berriz, %29,3 dira emakumeak.

Ohar metodologikoa: Egikaritza-sektoreen arabera sailkapen-irizpideen berrikuste bat egin da, zeinak ekarri baitu aurreko urteen aldeko zenbait unitateren birsailkatzea. Honek ez dio eragiten gastuaren guztizkoari, baina bai datuei egikaritza-sektoreka. Serieak berrikusi eta laster zabalduko da Eustaten datu-bankuan.

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Pilar Vázquez Sancho

Tel.: +34-945-01 75 46 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko ikerketa eta garapen teknologikoko (I+G) jardueren estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko ikerketa eta garapen teknologikoko (I+G) jardueren estatistikari buruzko datu bankua